

## AL GOBIERNO Y A LA OPINION PUBLICA DE NAVARRA

*Pamplona, 26 de octubre de 1990*

La Real Academia de la Lengua Vasca —Euskaltzaindia—, en su sesión plenaria celebrada con fecha 26 de Octubre, ha tenido conocimiento de la concesión de siete licencias de radiodifusión por F.M. en la Comunidad Foral de Navarra, de las cuales ninguna tiene programación ordinaria ni adecuada en lengua vasca.

Ante este hecho, esta Real Academia, entre cuyos fines estatutarios figura el de “velar por los derechos de la lengua” y ostenta además la condición legalmente establecida de asesora oficial de la Administración Foral, desea hacer pública su protesta y desacuerdo con la mayor energía. Es inaceptable que se haya postergado una vez más una de las lenguas oficiales de esta Comunidad, conculcando el derecho del euskera y de todos los ciudadanos navarros, sean o no vascoparlantes.

El hecho resulta agravado por cuanto ninguna de las veinte licencias que se prevén en vigor a partir de la fecha puedan ser consideradas de lengua vasca. Y además, porque en ninguna de las otras comunidades oficialmente bilingües ocurre nada semejante.

Asombra que en un concurso público, en cuyos criterios de adjudicación se mencionaba precisamente que se tomaría en consideración la lengua vasca, se haya resuelto de una forma tan poco equitativa.

Una vez más, asistimos a una práctica que contradice las palabras referentes al euskera, como patrimonio común de la sociedad.

Euskaltzaindia confía que la Administración Foral corrija de modo inmediato esta arbitrariedad, reconociendo a la lengua vasca un espacio no subalterno y vigorzante en la radiofonía de esta Comunidad.

## 2. BATZAR ARRUNTA

Donostian, Gipuzkoako Foru Diputazioan, 1990.eko urriaren 26an, arratsaldeko 4etan, bildu dira, goizeko bilkuran egondakoez gain, J.A. Arkotxa, P. Arregi, M. Atxaga, R. Badiola, J. Etxaide, J. Garmendia Larrañaga, M.<sup>a</sup> P. Lasarte, A. Zatarain eta J.J. Zearreta urgazleak.

Lehendabizi J. Haritschelhar euskaltzainburuak Beñat Oihartzabal euskaltzain hautatu berriari ongi etorria ematen dio.

Jarraian, J.M. Satrustegi idazkariak goizeko bileraren berri ematen du, laburbildurik gai hauek azpimarra daitezkeelarik: 1. Letra larri edo maiuskulen erabilpena erabakitzeko gomendio arauak aztertu eta onartu dira, zerrendaren heren bat hurrengo bilkuran bukatzeko utziz; 2. BEZ/IVA zergaren inprimaki testua aztertzeko izendatu zen batzordeñoaren lana, orohar, ontzat eman da; J. Nafarroako Gobernuak FM irratientzako baimen banaketa dela eta euskal irratienaganako jokabide ukatzailea salatzea erabaki da; 4. Basauriko Udalak sortu duen euskararen teknikaria hautatzeko epaimahaikidea izendatu da.

*Dagozkien batzordeen azalpena.* Luis Luziano Bonaparte printzearen mendeurrena dela eta izendatuta dagoen batzordearen bilkuren berri eman da. Datoren urteko urriaren 21etik 26ra, Dialektologiari buruz Nazioarteko Biltzar bat antolatuko da, mendeurren horren inguruan zenbait erakusketa eta argitarapen ere izango direlarik.

Onomastika batzordearen kontu ere eman da, bereziki deiturak euskal grafian idaztearen arazoaz eta Lizarran oraintsu egindako III. Onomastika Jardunaldien ondorioez.

Gramatika Batzordeak, *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak - III* liburukia argitaratzeko prest dagoela adierazi du.

“Noiz hil zen Axular?” izeneko txostena irakurri du E. Knörr euskaltzainak. Gai honi buruz zenbait xehetasun interesgarri ematen ditu, jarraian elkarrizketa bat sortzen delarik.

“EIZIE nazioarteko itzultzaileen federazioan” tituludun txostena irakurtzen du Josu Zabaleta euskal itzultzaile elkarte horretako arduradunak. Yugoslaviako hiriburuan oraintsu izandako kongresoaren berri zehatzak ematen ditu, besteak beste, euskarari buruzkoak, zeren eta gure hizkuntzaren presentzia nabarmendu bai zen.

Eta besterik gabe, amaitu da batzarrea.

*Euskaltzainburua*  
*Jean Haritschelhar*

*Idazkaria*  
*Jose M. Satrustegi*